



PRENTSA-OHARRA

ETXETAKO HONDAKINEN ZATI ORGANIKOAREN BILKETA BERRIA 5. EDUKIONTZIAREN BIDEZ SASIETA MANKOMUNITATEAN

Sasieta mankomunitateak, aurki, etxetako hondakinen zati organikoaren bilketa berria martxan jarriko du. Bilketa, kalean jarriko diren 5. edukiontzi marroi bidez egingo da, ondoren bildutakoa konpost bihurtzeko.

Edukiontziak sarraila berezia izango dute eta parte hartu nahi duten guztiei entregatuko zaien giltza baten bidez ireki ahal izango da. Sarrailaren helburua hauxe litzateke: erruz edo utzikeriagatik, bizilagun gutxi batzuk beste askoren ahalegina ankaz gora ez botatzea eta azken batean, kalitate handieneko konposta lortzea.

Egin den plangintzan, aurten eta datorren urtean, Sasieta mankomunitatea osatzen duten 22 udalerrietan 300 edukiontzi inguru jartzea aurreikusi da:

Banaketa egiteko hiru fase izango dira:

1. Lehen fasea, aurten bertan, ekainetik urrira bitartean, 8 udalerrri hauetan: Beasain, Lazkao, Itsasondo, Arama, Olaberria, Idiazabal, Zaldibia eta Ormaiztegi. Guztira 25.839 biztanle.

2. Bigarren fasea, 2011ko lehen sei hilabetean, 11 udalerrri hauetan: Ordizia, Ataun, Legorreta, Alzaga, Gabiria, Gaintza, Segura, Zegama, Zerain, Mutiloa eta Ezkio-Itsaso. Guztira 17.614 biztanle.
3. Hirugarren eta azken fasea, 2011ko bigarren sei hilabetean, 3 udalerrri hauetan: Zumarraga, Legazpi eta Urretxu. Guztira 25.731 biztanle.

Hasera batean, edukiontzi marroi berriak gaur egun kalean dauden beira, papera, ontziak eta errefusarentzako beste lau edukiontzien ondoan jarriko dira, nolabaiteko "irla ekologikoa" eratuz. Beraz, edukiontzi marroia udalerrietako gunee urbanoetan, kaskoan alegia, kokatuko da gehienbat.

Edukiontzi marroiaren bilketa, garbiketa eta mantenimendua egiteko mankomunitateko Batzarrak, aste honetan bertan, zabor-bilketako enpresa kontzesiodunari kontratua zabaldu dio, gaur egun dituen baliabideak (alboko kargako kamioiak, garbiketa eta mantenimenduko ekipoak etab.) aprobetxatzeko eta optimizatzeke eta azken batean, zerbitzuaren kostua ahalik eta murriztena izateko.

Datorren maiatzean hasiko da sentsibilizazio kanpaina. Mankomunitatea saiatuko da informazioa modu argian eta ulerterrezean herritar guztiengana heltzen, kalitatezko zerbitzua eskeintzen eta parte hartzeko erreztasun handienak ematen.

Bere borondatez, zati organikoaren bilketan parte hartu nahi duten herritarrei etxean bereizketa behar bezala egiteko sorta edo *kit* moduko bat emango zaie dohan: aireztatutako 10 litroko ontzi bat, poltsa konpostagarriak eta edukiontzi marroiaren sarraila irekitzeko giltza bat.

Edukiontzi marroiak zabaltzearekin batera mankomunitateak ahalegin berezia egin behar du banakako konpostaia ere ahal den gehien zabaltzeko, etxetako konpostagailu txikien erabilpena bultzatuz eta herritarren artean banatuz, norberak bere etxean konposta egin dezan. Konpostagailuak lorategi, baratze edo lursaila duten dentsitate txikiko bizitegi-guneetan banatuko dira, toki hauetara edukiontzi marroia seguraski ez bait da erabat iritsiko.

Mankomunitateak eskerrak eman nahi dizkie:

- a) Batetik, gaikako bilketako edukiontziak erabiltzen dituzten herritarrei eta bidez batez, animatu bilketa berri honetan ere, beldurrik gabe, parte hartzeko. Askok uste duten baino errezagoa izango da.



SASIETA
MANKOMUNITATEA



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

- b) Eta bestetik, Foru Aldundiko Garapen Iraunkorrerako Departamendua, instituzio honek ekimen berri hau martxan jartzeko beharrezkoak diren elementuak erosteko emango dion dirulaguntzagatik eta mankomunitateak jaso berri dituen 100 konpostagailuengatik.